


euskararen berripapera 2010



Zure hizkuntza-eskubideak ezagutzen dituzu?

Elebide, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak aukera ematen die herritarrei beren zalantzak, galderak eta kexak argitzeko.



Hiru zeregin nagusi ditu Elebidek: hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea, herritarrei babesa emanaz; prozedura bat jartzea berme hori eraginkorra izan dadin eta, azkenik, konponbideak ezartzeko arduraren dute administrazio eta erakundeekin lankidetzan jardutea, irtenbiderik onena aurkitzeko. Herritarren eskubideak bermatzeko bitartekotzan egiten du lan Elebidek. Laguntza eskaintzen dio berarengana jo duen herritarri, baita herritarren galdera, kezka, kexa edo dena delakoari erantzutea dagokion erakundeari ere.

Elebidek beti ere indarrean den araudian aitortutako hizkuntza-eskubideak hartzen ditu oinarri, euskara eta gaztelania erabili nahi duten herritarren babesean, biak baitira hizkuntza ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari atxikita dago Elebide, eta uztailaren 29ko 150/2008 Dekretuak arautzen du haren jarduna.

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek jo dezakete Elebidera, eta beren zalantzak, galderak eta kexak helarazi. Izan ere, zerbitzu horri honakoak baitagozkio:

- Herritarrek hizkuntza-eskubideen babesarekin lotuta egiten dituzten iradokizunak jaso eta izapidetzea.
- Herritarren kontsultak jaso eta erantzutea, hizkuntza-eskubideen eta hizkuntza araudiaren gaineko informazioa eta aholkularitza emanaz.
- Herritarren kexak jaso eta izapidetzea, hizkuntza-eskubideak urratu direla-eta edo horiek erabiltzearen ondorioz kalteak jasan direla-eta.

Herritarrek bide ezberdinak dituzte eskura Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzura jotzeko:

- Posta arrunta: Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua; Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Kultura Saila; Eusko Jaurlaritzak. Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.
- Telefonoa: 012.
- Internet: www.euskadi.net/elebide
- Posta elektronikoa: elebide@ej-gv.es

Elebidera jotzean, herritarrek hainbat datu eman behar dituzte: izen-abizenak; nortasun agiri zenbakia; helbide bat; egitateak; kexa, kontsulta edo iradokizunaren muina diren arrazoiak; lekua eta data.

Prozedura: Elebidek kexen, kontsulten eta iradokizunen barne-erregistro bat kudeatzen du eta horiei guztiei buruzko informazioa jaso, tartean haien izapidetze-prozedura eta, dagokionean, ebazpena edo erantzuna.

Kexa, kontsulta edo iradokizuna aurkeztuta, Elebidek informazio-espeditentea zabaltzen du eta, behar denean, egoki irizitako ikerketak eta diligenziak burutzen.

Ondoren, eragindako erakundera bideratzen du Elebidek jasotako kexa, kontsulta edo iradokizuna, aintzat har dezan, eta hala badagokio, erantzun egokia presta dezan. Eragindako erakundeak Elebidera bidaliko du erantzuna, eta horrek pertsona interesdunari igorriko.

Horrela, prozedurako azken urrats gisa, herritarrak jakinarazpen bat jasoko du Elebideetik, eta bertan izapidetzearen berri emango zaio eta erantzuna atxikiko.

Bere jardunean datu pertsonalen babesa bermatzen du Elebidek, Datu Pertsonalen Babesa arautzen duen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat ●

HABEren 2009-2010 ikasturteko matrikulazio datuak

Goraka jarraitzen du HABEren matrikulazio-kopuruak: iaz baino %1,19 ikasle gehiago matrikulatu da 2009-2010 ikasturterako.

2009-2010 ikasturtearen hasiera

2008-2009		2009-2010		Aldea ordutan
Taldeak	Ordu teorikoak	Taldeak	Ordu teorikoak	
2.398	602.975	2.450	614.996	%1,99

Ikasleak	Urriaren 31n	Bukaeran	Aldea
2008-2009	30.034	38.957	--
2009-2010	30.390	--	%1,19

Amaitu berri den 2008-2009 ikasturteko datuek honako bereizgarriak dituzte: 1) aurreko ikasturtean baino 2.400 ikasle inguru gehiago izan dira; 2) hazkunde nagusia ikasle gazteena izan da; 3) funtzionarioen portzenta-jeak ia %2 egin du behera; 4) emakumezkoak %67,91 izan dira; gizonezkoak %32,09 ●

Hizkuntza-proben inguruko sinposioa

HABEk eta EALTAK (Hizkuntzen Ebaluaketarako Europako Elkarte) antolatuta, azaroaren 13an, hizkuntza-proben inguruko sinposioa izan zen Donostiako Miramon Parke Teknologikoan. Gai honi lotutako jokabide egokien azterketa izan zen sinposioaren ardatz, hots, Europan ziurtagiri bat homologatzeko bete beharreko baldintzak zein diren.

HABErentzat hain garrantzi handia duen gaia jorrazteko hiru hitzaldi eman ziren: Neus Figueras-ena –EALTAREN lehendabiziko lehendakaria–, Gudrun Erickson-ena –Elkartearen idazkari anderea– eta HABEren hainbat teknikari-rena. Bestalde, sinposioan parte hartu zutenek jokabide egokien gida-lerroak aztertu zituzten taldeka.

Jardunaldia antolatu zen hizkuntzen proba-sistemaren kalitatea aztertu nahi duen ororentzat ●

Euskara munduan



Las Floreseko barnetegiko partaideak.


Sarritan nabarmendu izan dugu Argentina Euskaraz aitzin-egitasmoztat erabilia izan dela euskara-ikastaroak mundu guztiko Euskal Etxeetan zabaltzeko. Hain zuzen ere, horixe izan zen Euskara Munduan programaren abiapuntua.

HABEk nazioarteko hainbat federakuntza eta euskal etxerekin batera egiten du lan. Honako hauek dira lan-ildoak: 1) herrialde bakoitzean euskara-irakasleen formazioa; 2) ikasle-irakasleak ikasmateriaz hornitzea; 3) komunikazioa, tutoretza eta azpiegitura informatikoa hobetzea; 4) egitasmoaren finantziazioa, eta egitasmoaren beraren jarraipena egitea.

Horiek guztiak eginkizun, osasuntsu darraio programak eta burutu berria da 2009ko neguko (hemengo uda) barnetegia Argentinan. Oraingo honetan Las Flo-

res herrian ospatu da, bertako euskal etxea izan baita oraingoan antolatzaile. Bertan Hego Ameriketako herrialde desberdinetatik etorritako 38 irakaslegai bildu dira. Aurten, lehenengo aldiz, Ipar Ameriketatik ere etorri da irakaslegai bat, Boisetik, hain zuzen ere. Barnetegialdiak 10 egun iraun du eta urtean zehar urrutitik (on-line) landutako edukiak finkatzeaz gain BOGA programa informatikoa Argentinan zabaltzeko gutxieneko trebakuntza ikastaroa egiteko aukera ere izan dute.

Orain dela gutxi hasi dugu 2009/10 ikasturte berria eta 23 hitzarmen sinatuko ditu HABEK. Lehenengo aldiz sinatuko da Paraguako Jasone Euskal Etxearekin. Horrek esan nahi du aurrerantzean, orain artean ez bezala, Paraguain ere euskara ikasteko parada izango dutela. Hitzarmen horiei esker Eusko Jaurlaritzaren erregistroan dauden euskal etxeen erdian baino gehiagotan 2.000tik gora izango dira euskara ikasten arituko diren helduak ikasturte honetan. Horiei 1.000 ume gehitu behar dizkiegu, 800dik gora Argentinan eta gainerakoak Madril, Bartzelona, Montevideo, eta abarreen ●




Mª Antonia Martí

Europako eremu urriko hizkuntzak eta teknologia berriak

Hizkuntza baten izaera ofiziala, hau da, bertako hizkuntzatzat jo duen estatu bat edukitzea erabakigarria da hizkuntza horretarako erabiltzaile-mailako aplikazioak eta inguruneak edukitzera zuzendutako politika garatzeko.

Teknologia linguistikoa ingeleserako sortu eta garatu da, funtsean. Politika zuzentzaileak aplikatzen ez badira, hizkuntzen oso kopuru txiki batek garatuko ditu mota horretako aplikazioak.

Mª Antonia Martí (Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea) idatzitako artikulua osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikulua eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



txtng. the gr8 db8
Crystal, D.



Lenguas y comunidades en la Europa moderna
Burke, P.



Azterlana

Ikastolen Hizkuntz proiektua
Askoren artean

Euskararen Nazioarteko Eguna



Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi

Lópezek agerraldia egin zuen Azpeitian (Gipuzkoa), Manuel Larramendik euskarazko lehen gramatika idatzi zuen gela berean. Lehendakariaren hitzetan, euskarazko kultura demokratikoa, tolerantzia eta aurreiritzi gabekoa bultzatu eta euskara askatasunaren eta demokraziaren bidelagun izatea nahi da.

«Euskara ez da ideologia konkretu baten ondarea. Euskadi, Espainia, Europa eta munduko biztanle ororen ondasuna da» adierazi zuen Lópezek. Lehendakariaren esanetan «euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza ezin dugu arazo bat bezala ikusi, gizarte eredu solidarioagoa eta aurrerakoiagoa lortzeko aukera bezala baizik».

Amaitzeko, Patxi López lehendakariak euskararentzako kultura berri bat indartzeko konpromisoa hartu zuen.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako sailburuorde Ramon Etxezarretak euskararen alde kontsentsuak lortu behar direla adierazi zuen, «adostasunik gabe ez baita gure hizkuntzaren normalizazioa lortuko» ●

Kultura katalana Durangoko Azokako gonbidatua



Argazki Press

Gerediaga elkarteak antolatutako Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 44. edizioa abenduaren 4tik 8ra ospatu zen.

Antolatzaileen esanetan, ohiko erakusmahaietz gain egitarau luze eta zabala eskaini zen, inoiz baino ekitaldi gehiago egon baitziren. Egitarau horretan leku berezia izan zuen kultura katalanaren, hizkuntza horretan sortutako kultura izan baitzen 2009ko edizioiko gonbidatu nagusia. Horretarako, Ramon Llull Institutuaren laguntza izan zuen Gerediaga elkarteak.

Aurtengo edizioan proiektu berri bat ere estreinatu zen: azokari freskotasuna eta bizitasuna ekarri dion Azoka TB, azokako telebista. Ekonomi arloari dagokionez, berriz, Durangoko Azokak krisiari eutsi egin diola nabarmendu dute antolatzaileek.

Azkenik, Argizaiola saria euskaraz irakasten hasi ziren lehendabiziko ikastoletako andereñoek jaso zuten ●



Londres eta Berlingo hizkuntza-azokak



Eusko Jaurlaritza Londresko The Language Show eta Berlingo hizkuntza-azoketan izan da azaroan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) eta HABEren eskutik. Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzaren inguruan dabilzan mundu zabaleko eragileak zein kultur erakunde askotako ordezkariak bildu dira aipatu azoketan eta Jaurlaritzak euskararen eta hizkuntzarekin zerikusia duten alderdi desberdinen berri eman du.

Jaurlaritzaren estandera hurbildu diren ehunka pertsonak kasu batean nahiz bestean antzeko jakin-mina erakutsi dute. Hauek izan dira gehien planteatu diren gaiak: euskara ikasteko Londresen edo Berlinen dauden aukerak; Erresuma Batuko eta Alemaniako ikastetxeetan dauden gaztelerako irakasleek euskara eta euskal kulturaren oinarrizko ezagutza emateko materialak; Euskal Herrian euskara ikasteko dauden ikastaro trinkoak, eta abar.

Planteatu zaizkigun eskari horiei egoki erantzuteko materialak diseinatu eta argitaratzeari ekingo diogu datozen hilabeteetan ●

Euskal Literaturaren Hiztegia sarean



Jon Kortazar Literatura katedradunak zuzenduriko ikerketa-taldeak *Euskal Literaturaren Hiztegia* proiektuarekin jarraitzen du, UPV-EHUko Euskara Institutuak bideratutako egitasmoaren barruan.

Hiztegi honek bi helburu ditu: alde batetik, euskal literaturako liburuei buruzko artikulu sorta bat eskaintzea eta, bestetik, euskal idazleen hiztegi bat sortzea. Lehen asmoa dagoeneko burutu da hein handi batean. Orotara 222 iruzkin baino gehiago izango dira, baina gaur egun asko eta asko eskuragarri dira Interneten eta lan berriak argitaratu ahala web gunea eguneratzeko asmoa dago. Gaur egun kritika hauetako asko Euskara Institutuaren gunean irakur daitezke (www.ehu.es/ehg/literatura). Bigarren xedea, aldiz, datoren urterako egongo da prest.

Lan honetako partaide dira (edo izan dira) Jon Kortazar, Iñaki Aldekoa, Ibon Egaña, Iratxe Retolaza, Lourdes Otaegi, Axun Aierbe (1967-2007), Fco. Javier Rojo, Ur Apalategi, Anjel Erro, Alvaro Rabelli, Miren Billelabeitia, Asier Barandiaran, Iratxe Martin eta Amaia Serrano. Taldearen barnean oreka bilatzeko asmoz, adin desberdinetako kideek Literaturari buruzko ikuspegia aberastuko dutelakoan, partaideen artean EAEko, Iparraldeko zein Nafarroako irakasleak daude, Unibertsitate mailakoak zein Bigarren Hezkuntzakoak, baita ikasleak ere. Proiektu honen bidez Euskal Literaturako lan nagusien erreferentziak eskaintzen dira, klasikoenetik hasita modernoetaraino ●

Euskarazko testuak digitalizatuta

HPSk *Tesseract-OCROPUS* euskaraz tresna jarri du erabiltzaile guztion eskura www.euskara.euskadi.net/euskara_soft helbidean, 'plugin-ak' atalean. Tresna hau Windows ingurunean (Windows 2000, Windows XP edo Windows Vista) zein Linux ingurunean dabil eta eskaneatutako euskarazko testuak OCR (Optical Character Recognition - Karaktere Ezagutze Optikoa) bidez ezagutzeko gai den paketea da. Erabiltzen duen azpiegitura Googlek babesturiko Tesseract oinarrizko OCR tresnak eta OCROPUS dokumentu analizatzaileak osatzen dute.

Helburu nagusia euskaraz idatzitako testuak modu fidagarri eta automatikoa ezagutzeko gai izango den tresna gizartearen eskuetan jartzea izan da.

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak prestatu du tresna hau ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco